

ADINEKOENTZAKO GIDA

ERRENERIAKO ZERBITZUAK



Errenteriako Udala



"DUINTASUNA"
ELKARTEA

Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunak

AURKEZPENA

Gida honen helburua da Udalak pentsiodunentzat eta jubilatuentzat daukan zerbitzu-eskaintza biltzea. Orrialde hauetan laburbilduta daude kolektibo horri zuzenduta dauden ariketa fisikoa, kultura eta heziketa mailako proposamenak, baita gizarte zerbitzuak eta jaso ditzakeen laguntzak ere.

AURKIBIDEA

Ariketa fisikoa, kultura eta heziketa	4
Gizarte zerbitzuak	6
Udalaren beste hainbat zerbitzu	12
Beste zenbait baliabide eta elkarte interesgarri	12
Telefono interesgarriak	13

1. ARIKETA FISIKOA, KULTURA ETA HEZIKETA



ARIKETA FISIKOA

IBILALDI OSASUNTSUAK

Mendi ibilaldietan erabiltzen diren makilen gisakoak erabilia. **Informazio gehiago:** Fanderiako Igerilekuan edo Galtarabordako Kirolgunean.

MUGITUZ

Paziente “ahulak” deituriko pertsoneri zuzendutako ariketa fisikorako programa. Anbulategietako osasun zerbitzuetako langileek bideratuko dituzte programa horretara gaixoak. **Informazio gehiago:** Udaleko Kiroletako Azpisailean.

MUGI ZAITEZ BIHOTZA

Osasun arazoak direla eta, beren mediku-tratamendua bizitza ohituretan aldaketak ezarriz osatu behar izaten duten pertsoneri zuzendutako ariketa fisikorako programa. Anbulategietako osasun zerbitzuetako langileek bideratuko dituzte programa horretara gaixoak. **Informazio gehiago:** Udaleko Kiroletako Azpisailean.

PREZIO BEREZIAK

Prezio bereziak udal kirol instalakuntzetako abonuetan. **Informazio gehiago:** Udaleko Kiroletako Azpisailean.

ZIRKUITU OSASUNGARRIAK

Kalean ariketa egiteko gimnasiarako makinak dituzten parkeak. Iztieta Pasealekuan, Gabierrotako plazan eta Jose Manuel Zamarreño parkean daude. **Informazio gehiago:** Udaleko Kiroletako Azpisailean.



KULTURA ETA HEZIKETA

+55 TAILERRAK

+55 kolektiboarekin kultura bitartekaritza ekimenak.

Informazio gehiago: Udaleko Kultura Azpisailean.

ZINEMA ZABALDUZ

Zinema-saioak erretiratuen elkarteetako bazkideentzat bi euroren truke, kultura hirugarren adinera hurbildu eta gizarte mailako trukerako guneak sortzearen. Niessen Zinemetan izango da. Egutegia begiratu.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

ATEAK ZABALDUZ

Urtean behin egiten den astebeteko ekimena, zenbait ekintza-
ren bidez herritarrei erretiratuen elkarte ezberdinetan ikas-
turtean zehar egiten diren lan eta ekintza mordoa erakustea
helburu duena.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

EUSKARA-ESKOLAK UDAL EUSKALTEGIAN

Pentsionistentzako prezio bereziak (pentsionistak edota
beren kargu dauden seme-alabak ikasle direnetan, beti
ere, jasotzen duten pentsioa lanbide arteko gutxieneko
soldata baino handiago ez dela justifikatzen badute).

Informazio gehiago: Udaleko Hizkuntza Politika Sailean.

2. GIZARTE ZERBITZUAK

Zerbitzu hauek jasotzeko gizarte langileek balorazioa egitea ezinbestekoa denez, **hitzordua hartu beharra dago, Santa Klara 18ko bulegoetara joanez, edota 943 449 604 zenbakira deituz.**



ZERBITZU OROKORRAK

INFORMAZIO, BALIOSPEN, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTABIDE ZERBITZUA

Errenterian erroldatutako pertsonak edo beraien ordezkariak eska dezakete.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

MENDEKOTASUNA BALORATZEKO BAREMOA

Adin, gaixotasun edo ezgaitasunaren ondoriozko arrazoiak eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren galerarekin lotutako arrazoiak direla medio eguneroko bizimoduaren oinarritzko jarduerak gauzatzeko iraunkorki beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza handia behar duten pertsonen mendekotasun mailaren balorazioa da. Ezgaitasun intelektual edo buruko gaixotasuna duten pertsonen kasuan, autonomia pertsonalerako bestelako laguntzak behar dituzte.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

EZGAITASUNAREN BALORAZIOA

Murriztasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duen edozein pertsonaren elbarritasuna eta elbarritasun-mailaren balorazioa.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

TELELAGUNTZA ZERBITZUA

Gizarte mailako premiazko edo emergentziatzko egoeretan berehalako esku-hartzea izateko.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

LAGUNKIDE ACOGE: PERTSONA HELDUENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

Erabiltzailearen bakardadea aurreikusi eta autonomia bultzatzea helburu duten tailerrak: memoria lantzekoak, gimnasia, esku-lanetakoak eta ludikoak.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Autonomia galdu izana aurreikusi eta konpentsatzeko zerbitzua, eguneroko bizitzarako aktibitateak egiteko laguntza eta etxea bizitzeko baldintza egokietan mantentzeko laguntza eskaintzen da, baita zaintzaileei ere.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisailean.

GIZARTE ZERBITZUAK



MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

LAGUNTZA TEKNIKOEN ESKAERA ETA DIRULAGUNTZAK

Laguntza ekonomikoak ematea eta languzarako produktuak uztea ezgaitasuna duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxean jarrai dezaten, baita eguneroko bizimodurako jarduerak egin eta gizarteratzeko beren autonomia pertsonala gara dezaten ere.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKOENTZAT EGUNEKO ZENTROA

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak arreta integrala eskaintzen die, egunean zehar, ohiko ingurunean beren premiak behar bezala asetzerik ez dutenean, muga fisiko edota psikiko handiak izateagatik eguneroko bizimoduaren jarduerak gauzatzeko. Zentro batzuetan zerbitzua asteburu eta jai egunetan ere eskaintzen da. Horretaz gain, garraio zerbitzua eskaintzen da.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN FAMILIA HARRERA

Familia baten antzeko bizi giroa eskaintzen zaie mendeko pertsonen ingurune normalizatu batean eta behar dituzten zainketak jasotzen dituzte.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Prestazio honek bermatzen du mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak behar dituzten zainketak izatea, familiek eta zaintzen dituzten pertsonak atsedean har dezaten eta aurre egiteko zainketen jarraitasuna zalantzan jar dezakeen edo zainketak birplanteatzea beharrezko egin dezakeen beste edozein egoerari.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK

Zentro hauek bizileku iraunkorra eta, hala dagokionean, aldi baterako bizileku dira, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzat, pertsona horiek dituzten premiak bere ohiko ingurunean edo bizileku aukera arinagoetan behar bezala aseterik ez dagoenean laguntza handiagoak behar dituztelako.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

ADINEKOENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA

Intentsitate baxuko alojamendua da, egonaldi luze edo iraunkorretarako, eta salbuespenetan aldi baterako, babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonari edo lehenengo mailako mendekotasun egoeran daudenei bideratutakoa.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

MENDEKOTASUNARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK

Prestazio ekonomikoa pertsona bat familia-ingurunean zaintzeagatik, laguntza pertsonaleko dirulaguntza eta zerbitzuari lotutako dirulaguntza. Ikus gehiago jarraian datorren puntuan.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

GIZARTE ZERBITZUAK



DIRULAGUNTZAK

Honako dirulaguntza hauek bideratzea: genero indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoa, Gizarte larrialdietarako laguntza, kotizatu gabekoen pentsioa, Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak eta mendekotasunari dagozkion dirulaguntzak.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOA

Genero-indarkeriaren biktimak izanik lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzenduta daude eta diru-sarrera falta aldi baterako arintzeko jomuga dute, denbora-tarte horretan pertsonak bere egoera egonkortzea eta berari nahiz bere kargura dauden pertsoneri dagozkien pentsioak edota prestazio ekonomikoak bideratzea lortzeko.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsoneri zuzendutako dirulaguntzak dira, gizarte bazterkeria egoerak saihesteko beharrezkoak diren ohiko edo ezohiko gastu espezifikoiei aurre egiteko.

KOTIZATU GABEKOEN PENSIOA

Erretiro adinean edo ezgaitasun egoeran egonik, Gizarte Segurantzari kotizatu ez edo nahikoa kotizatu ez diotelako, kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubidea ez duten pertsoneri zuzendutako aldizkako prestazio ekonomikoak dira, betiere diru-sarrera nahikorik ez dutenean. Oinarrizko beharrei aurre egiteko dira, gutxienerako bermeen modalitatean, eta ondorioz ezin dira beste diru-sarrera propiorik edo familiarik izan gutxienerako beharrak asetzeko. Ulertzen da ez dituela nahikoa diru-sarrerarik, baldin eta urte guztiko diru-sarrerak laguntza honen urteko kopurua baino txikiagoak badira. Bi modalitate

daude: ezintasunaren ondoriozkoa edo erretiroa hartzearen ondoriozkoa.

GIZARTE ONGIZATEKO FUNTSEKO PENTSIOAK

Hileroko prestazio ekonomikoa da eta baliabide urriak dituzten 65 urtetik gorako pertsonei edo lan egitea eragozten dien ezintasunen bat duten pertsonei ematen zaie, oinarrizko beharrei aurre egin diezaieten.

MENDEKOTASUNARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK

PRESTAZIO EKONOMIKOA PERTSONA BAT FAMILIA-INGURUNEAN ZAINZEAGATIK

Mendekotasuna duen pertsona batekin bizi den senitartekoak mendekotasuna duen pertsona zaintzera bideratutako prestazio ekonomikoa.

LAGUNTZA PERTSONALEKO DIRULAGUNTZA

Mendekotasun handia duen pertsona bat zaintzeko Gizarte Segurantzaren altan dauden laguntzaile pertsonalak kontratatzeko prestazio ekonomikoa.

ZERBITZUARI LOTUTAKO DIRULAGUNTZA

Izaera pribatuko egoitza batean (Eguneko Zentroa edo Egoitza Iraunkorra) sartzeko prestazio ekonomikoa da, zentro publiko edo itunpeko baten itxaron-zerrendan dauden eta mendekotasuna duten pertsonei bideratutakoa.

Informazio gehiago: Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Azpisalean.

3. UDALAREN BESTE HAINBAT ZERBITZU

Udalak, halaber, jubilatuek eta pentsiodunak gonbidatzen ditu publiko orokorrarentzat kudeatzen dituen zerbitzu eta instalakuntzak, eurentzat interesgarriak izan daitezkeenak, erabiltzera, besteak beste, honako hauek: Liburutegia eta bertan antolatzen diren jarduerak, Euskaltegia, KZ gunea, Kirol Ekintzak, arte eszenikoen programazioa, Xenpelar Tailerrak, Hizkuntzen Topagunea, Emakumeen Etxea eta bertako programazioa, Eskola Feminista...

4. BESTE ZENBAIT BALIABIDE ETA ELKARTE INTERESGARRI

Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI) Zentroa

Erretiratuen Elkarteak (ikus 13. orrialdea)

Auzoetako Emakumeen Elkarten programa

Club Atletico Renteriako (C.A.R.) Beteranoen taldea

AEK Euskaltegia

5. TELEFONO INTERESGARRIAK

UDALA ETA UDAL ZERBITZUAK

ZU! Zure Udala, arreta zerbitzua	943 449 600
Gizarte zerbitzuak	943 449 604
Liburutegia	943 449 635
Emakumeen Etxea	943 449 630
Udaltzaingoa	943 344 343
Galtzarabordako Kiroldedia	943 449 690
Fanderiako Kirolgunea	943 344 423
Niessen Kulturgunea	943 449 634

LARRIALDIAK

SOS deiak	112
Udaltzaingoa	943 344 343

OSASUNA

Beraungo Osasun Zentroa	943 006 570
Iztietako Osasun Zentroa	943 007 940
Lartzabalgo Anbulatorioa	943 007 800
Donostia Unibertsitate Ospitalea	943 007 000

ERRENTIRATUEN UDAL ELKARTEAK

San Agustin (Agustinak) Erretiratuen Elkarte	943 522 904
La Magdalena (Alaberga) Erretiratuen Elkarte	943 526 036
Bienvenido (Beraun) Erretiratuen Elkarte	943 341 538
Laguntasuna (Gabierrota) Erretiratuen Elkarte	943 526 086
El Parque (Galtzaraborda) Erretiratuen Elkarte	943 525 713
San Jose (Kaputxinoak) Erretiratuen Elkarte	943 522 280
Beti Bizkor (Olibet) Erretiratuen Elkarte	943 519 386
Arramendipe (Pontika) Erretiratuen Elkarte	943 513 950

